

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DEBAKO UDALA

*Iragarkia*

Araututako jendaurreko informazio epea batera erreklama-zio edo oharpenik aurkeztu gabe iragan denez, behin betikotzat jo da 2021eko uztailaren 29an egindako Osoko Bilkurak hartutako hasierako erabakia, Debako Artzabalgo hilerriaren erregimen eta funtzionamendurako araudia. Testuak honakoak dira:

*Debako Artzabal udal hilerriaren eta beilatokiaren zein ekitaldi aretoaren funtzionamendua arautzeko erregelamendua.*

ZIOEN AZALPENEA

1986ko apirilaren 25eko Osasun Lege Orokorrek bere 42. artikuluan oro har ezartzen duenez, udalen gutxieneko erantzukizunekoak dira hilerriaren osasun kontrola eta osasun eta hileta polizia.

Beste alde batetik, udalaren beraren administrazio-esparruan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak bere 26.1. artikuluan barne hartzen ditu hilerriak udalerriri guztietan nahitaez egon behar duen zerbitzu publiko gisa, biztanle kopurua edozein delarik ere. Era berean, aipatutako 7/85 Legearen 25.2. artikuluan adierazten denez, udalerririak eskumenak izango ditu Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako araudiak hurrengo esparruetan zehazten dituen terminoetan: k) Hilerriak eta hileta-zerbitzuak.

Ondoren, Zerga arloko eta jarduera ekonomikoa sustatu eta liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 7ko 7/1997 EDLren 22. artikuluan liberalizatu egin ziren. Izan ere, ordura arte, aipatutako 7/85 Legearen 86.3, artikulua tokiko erakundeen alde erreserbatutako zerbitzuak ziren. Horrenbestez, geroztik, eragile pribatuek ere delako zerbitzuak ematea ahalbidetu da.

Osasun eta Hileta Poliziaren Araudia onartzen duen uztailaren 20ko 2263/1974 Dekretuak hilerri orok izan behar dituen gutxieneko baldintza eta instalazioak ezarri zituen. Ondoren, eta Estatu autonomikoa garatzearen ondorioz, barne-osasun esparruan oinarritzko legeria garatu eta gauzatzean, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun eta hileta araudia onartzen duen urriaren 19ko 202/2004 Dekretua (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2004ko azaroaren 18a) eta ekainaren 3ko 130/1997 Dekretuak aldatzen duen urriaren 6ko 267/1992 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko gorpu eta gorpuzkien garraioaren osasun baldintzak ezartzen dituena, gauzatu ziren.

Aipatutako legean, hilerriaren kontzeptua gisa honetan dago finkaturik: gorpu, gorpuzki, giza hondakin edo horien errauntsak lurperatzeko egokitutako lurzorua mugatua, osasun publikoari kalte egiteko arriskurik izan gabe.

AYUNTAMIENTO DE DEBA

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario sin que se haya presentado reclamación ni observación alguna, se han elevado a firmes y definitivos los acuerdos iniciales adoptados por el Pleno Municipal en sesión celebrada el 29 de julio de 2021, sobre el Reglamento de régimen y funcionamiento del cementerio municipal de Artzabal de Deba, cuyos textos son del siguiente tenor:

*Reglamento de funcionamiento del cementerio municipal de Artzabal de Deba, así como, de los velatorios y la sala de actos.*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley General de Sanidad de 25 de abril de 1986 establece genéricamente en su artículo 42 que son responsabilidades mínimas municipales el control sanitario de los cementerios y la policía sanitaria y mortuoria.

Por su parte dentro del ámbito de la administración propiamente municipal, la Ley 7/85 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local en su artículo 26.1 incluye los cementerios como un servicio público obligatorio en todos los municipios independientemente de cuál sea su número de habitantes. Así mismo el artículo 25.2 de la citada Ley 7/85 señala que el municipio ejercerá en todo caso competencias en los términos de la legislación del Estado y de las Comunidades Autónomas, en las siguientes materias: apartado k) Cementerio y servicios funerarios.

Posteriormente a través del RDL 7/1996 de 7 de junio de medidas urgentes de carácter fiscal y de fomento y liberalización de la actividad económica, mediante lo dispuesto en su artículo 22, se produjo la liberalización de los servicios mortuorios, ya que hasta entonces constituían un servicio reservado a favor de las entidades locales por el artículo 86.3 de la antes citada Ley 7/85, posibilitando por tanto a partir de entonces la participación de los operadores privados en la prestación del citado servicio.

Por Decreto 2263/1974 de 20 de julio por el que se aprueba el Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria, se estableció las condiciones e instalaciones mínimas que debe disponer todo cementerio. Con posterioridad, y fruto del desarrollo del Estado Autonómico, en ejercicio del desarrollo y ejecución de la legislación básica en materia de sanidad interior se dictaron el Decreto 202/2004 de 19 de octubre (*Boletín Oficial del País Vasco* de 18 de noviembre de 2004) por el que se aprueba el Reglamento de sanidad mortuoria de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Decreto 267/1992 de 6 de octubre, modificado por el Decreto 130/1997 de 3 de junio por el que se establecen las condiciones sanitarias del transporte de cadáveres y restos en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En la citada normativa queda fijado el concepto de cementerio como terreno delimitado que se habilita para dar sepultura a cadáveres, restos cadavéricos, restos humanos o las cenizas procedentes de ellos, sin que se deriven riesgos para la salud pública.

Hain zuzen ere, aipatutako urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren 46.2. artikulua behartu egiten du Barne Erregimeneko Arautegi bat gauzatzeko, hilerria antolatuz, funtzionatu eta kudeatzeko prozedurei buruzko alderdiak barne hartzen dituen, berriz, Dekretu hori eta indarreko Araudia betearaziz.

Hala, bada, udal arautegi berri bat egitean datza, aurreko preskripzioak aintzat hartuz, instalazio berriaren erregimen juridikoa eta haren berezitasunak ezartze aldera. Xede horretarako, garrantzitsutzat jo da instalazio berria parke berde edo lorategi gisa itxuratzea, hilerrien gaineko antzinako ikusmoldeak hautsiz, hain justu, gaur egun dauden biztanle-guneen alboan eraikita baitaude. Halaber, instalazio berriaren guneak bereizita daude:

- Errauntsak gordetzeko lurperatutako kolunbarioen gunea.
- Horman jarritako banakako nitxoaren gunea.
- Lur azpiko nitxoaren gunea.
- Hezurtegia.
- Errauntsen hobi komuna.
- Monumentuen gunea.

Helburua arautegi berria arina eta eragilea izatea da; gisa horretan, instalazio berritik zaharrerako bidea xedapen iragan korrean jasoko da, hilerri zaharretik berrirako urratsak egoki zehazteko.

## I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK ETA KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA

#### 1. artikulua. Erregimen juridikoa.

Debako Artzabal Udal Hilerria, Udalari dagokion Zerbitzu Publikoko Ondasuna da; Udalaren administrazioaren, zaintzaren eta zuzendaritzaren menpe gelditzen da, Erregelamendu honek adierazten diren baldintzetan, Aginte judizialari edo Osasun arloko agintariei dagozkien ahalmenak alde batera utzi gabe.

#### 2. artikulua. Udal eskumenak.

Edozein kasutan, Udalari dagokio:

- a) Hilerriaren Kudeaketa administratiboa.
- b) Hilerri antolaketa, zaintza, garbiketa, osasun-egoera eta egokitzapena.
- c) Gorpu eta gorpuzkiak lurperatzea, lurpetik ateratzea, erreduzitzea eta indarrean dagoen hildakoei buruzko osasun legeak eskatzen duena egitea.
- d) Horma edota lur azpiko hobien eraikuntza eta mantentzea (nitxoak eta kolunbarioak).
- e) Ehorzketa eskubideen baimena ematea, onartzea eta aldatzea.
- f) Zerga Ordenantzen ezarritako tasak jasotzea, gorpua edo errauntsak lurperatu, horman sartu edo ateratzeko edota errauntsen parkean ehorzketa zerbitzuei dagokienez.
- g) Zerga Ordenantzan ezarritako tarifak jasotzea, Beilatokia eta ekitaldi aretoaren eguneko erabilerari dagokionez.
- h) Erregistro liburuak eramatea.
- i) Indarrean dagoen arautegiak eskatzen dituen osasun eta higiene neurriak betetzea.

Concretamente el artículo 46.2 del citado Decreto 202/2004 de 19 de octubre obliga a dictar un Reglamento de Régimen Interior que contemple aquellos aspectos relativos a procedimientos para la organización, funcionamiento y gestión del cementerio, salvaguardando el cumplimiento de dicho Decreto y de la Legislación vigente.

Se trata ahora de dictar una nueva normativa municipal que, observando siempre las antedichas prescripciones, establezca el régimen jurídico de la nueva instalación así como sus particularidades. A este objeto, tiene especial relevancia la configuración de la nueva instalación a modo de parque-verde o jardín, rompiendo por tanto con las antiguas concepciones de los cementerios, ubicados incluso en proximidad a los núcleos poblacionales existentes. Así mismo, en la nueva instalación se distinguen los siguientes espacios:

- Espacio de columbarios enterrados para cenizas.
- Nichos de inhumación de pared.
- Nichos de inhumación en tierra.
- Osario.
- Fosa común de cenizas.
- Zona de monumentos.

Se pretende que el nuevo marco normativo resulte ágil y operativo, y se incorpora una disposición transitoria entre la nueva y antigua instalación, al objeto de determinar las pautas concretas a llevar a cabo.

## CAPÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES Y GESTIÓN ADMINISTRATIVA

#### Artículo 1. Régimen jurídico.

El Cementerio Municipal de Artzabal de Deba, como bien de Servicio Público de pertenencia del Ayuntamiento, queda sometido exclusivamente a la administración, gestión, cuidado y dirección de la Administración Municipal en los términos que se indican en el presente Reglamento, sin perjuicio de las facultades que corresponden a la autoridad judicial y, en su caso, a las sanitarias.

#### Artículo 2. Competencia municipal.

En todo caso corresponderá al Ayuntamiento:

- a) La gestión administrativa del cementerio.
- b) La organización, cuidados, limpieza, salubridad y acondicionamiento del cementerio.
- c) La inhumación, exhumación, traslado, depósito y reducción de cadáveres, y restos humanos, y cualesquiera otras actuaciones exigidas por la legislación vigente en materia sanitaria mortuoria.
- d) Construcción y mantenimiento de nichos y columbarios tanto de pared como enterrados.
- e) La autorización, reconocimiento y modificación de toda clase de derechos funerarios.
- f) La percepción de tasas que procedan conforme a la ordenanza fiscal en relación con los servicios de inhumación y exhumación de cuerpos y cenizas tanto de pared como enterrados, así como la inhumación en el parque de cenizas.
- g) La percepción de las tarifas establecida en la ordenanza fiscal en relación con el uso diario del velatorio y la sala de actos.
- h) La llevanza de los libros de registro.
- i) El cumplimiento de las medidas sanitarias e higiénicas exigibles conforme a la normativa vigente.

j) Berari dagokion beste edozein funtzio; hilerriaren jabe titularra den erakunde publikoa baita, eta udal mugen barne berari baitagokio jarduera arautzea.

### 3. artikulua. Partikularren eskubideak eta betebeharrak.

Partikularrek honako eskubide eta betebeharrak izango dituzte:

a) Debako hilerrian ehorzteko aukera izango dute:

– Jaiotzez Debakoak direnak.

– Gutxienez 15 urtetan Deban erroldaturik egon direnak.

– Deban erroldaturik daudenak hiltzeko momentuan.

– Mutrikuko Urazamendik kalean, Lasao haundi, Lasao txiki eta Buztiñaga baserrian erroldatutakoak.

b) Hilerrian ehorzteko eskubidea dute sexua, arraza eta erlijioa kontuan hartu gabe.

c) Bakoitzak nitxoa/kolunbarioa adierazten diren garbitasun, kontserbazio, apaindura eta estetika baldintzetan mantentzea. Hilerriko estetikarekin bat ez datorren elementurik ez jarzea eta ondorioz, hilarriek, itxigailuek eta gainontzeko apaindurek, araudi honetan ezarritako irizpide estetikoak mantendu beharko dituzte.

d) Hilerriko aretoak, bai ekitaldi aretoa zein beilatoki aretoak erabiltzeko eskubidea dute.

e) Erabilitako zerbitzuengatik Zerga Ordenantzian ezarritako tasak/tarifak ordaintzeko betebeharrak.

f) Udalak edo bestelako edozein administraziok edo erakunde eskudunek ematen dituen xedapenak errespetatzea eta betetzea.

### 4. artikulua. Kudeaketa administratiboa eta sarbidea.

Kudeaketa administratiboa, Udal Zerbitzuetako Batzordearen zuzendaritzarena izango da eta Udalak izendatzen dituen funtzionarioek hartuko dute zeregin horren ardura.

Hilerria jendearentzat irekita egunero egongo da. Orduetgia hilerriaren sarreran jarritako kartel baten bitartez jakinaraziko da. Debako Udaltzaingoa izango du hilerria ireki eta ixteko ardura.

Txakurrak eta bestelako animaliak ezin dira sartu, salbu eta laguntza-animaliak badira, indarrean dagoen legediaren arabera, eta jabearekin badoaz.

### 5. artikulua. Erregistro liburuak.

Ehorzlea arduratuko da erregistro-liburu bat eramateaz, eta hilerriko bulegoan gordeko da. Bertan, hilobietan, horma hobietan eta kolunbarioetan egindako ehorzketak, hobitik ateratzeak eta lekualdaketak jasoko dira, baita hobi komunean eta hezurretan utzitako errautsak eta hondarrak ere.

Bestalde, Udaletxeko Administrazio bulegoetan hilobiratze mota guztien zein hobitik ateratze eta lekualdaketen baimenen errolda liburua egongo da, eta dagokion zerbitzuaren ardura izango da.

### 6. artikulua. Zerbitzuak eta mantenua.

Debako Udalak bideak, estolderia-sarea, argiztapen sistema, zuhaitzak eta lorategiak, eraikinak eta hilerriaren interes orokorrari dagozkion bestelakoak mantentzeko, kontserbatzeko eta garbitzeko lanak edo zerbitzuak ematearen ardura izango du. Era berean, Udalaren ardura izango da hilerriko elementuak beritzeko egon litezkeen lanak.

j) Cualesquiera otras funciones que puedan corresponderle, atendiendo a su carácter de propietario titular del cementerio y a su condición de entidad pública a quien compete la regulación de la actividad dentro del término municipal.

### Artículo 3. Derechos y obligaciones de los particulares.

Corresponderán a los particulares los siguientes derechos y obligaciones:

a) Podrán ser inhumadas en el cementerio de Deba:

– Las personas nacidas en Deba.

– Las que hayan estado empadronadas en Deba al menos 15 años.

– Las que estén empadronadas en Deba en el momento de su fallecimiento.

– Las que estén empadronadas en la calle Urazamendik, en los caseríos, Lasao haundi, Lasao txiki y Buztiñaga de Mutriku.

b) Tendrán derecho a ser inhumados sin discriminación por sexo, raza o religión.

c) Mantener el nicho, columbario, etc. que le corresponda en las condiciones de higiene, conservación, ornato y estética que se señalen. No incorporar ningún elemento que pueda romper con la estética del cementerio, por lo que las lápidas, losas, cierres y demás elementos ornamentales deberán seguir los criterios estéticos establecidos en este reglamento.

d) Tendrán derecho a utilizar las salas del cementerio, tanto la sala de actos como los velatorios.

e) Obligación de abonar las tasas/tarifas establecidas en la Ordenanza Fiscal por la prestación de los servicios.

f) Respetar y cumplir cuantas disposiciones sean dictadas por el Ayuntamiento o cualquier otra administración o entidad competente.

### Artículo 4. Gestión administrativa y acceso.

La gestión administrativa se ejercerá bajo la dirección de la Comisión de Servicios Municipales, a cargo de los funcionarios que designe el Ayuntamiento a tal efecto.

El cementerio permanecerá abierto al público todos los días. El horario se hará constar mediante la colocación del oportuno cartel en el acceso de entrada al mismo. La Policía municipal de Deba se encargará de la apertura y cierre del cementerio.

No se permite la entrada de perros y otros animales, salvo aquellos que tengan carácter de animales de asistencia, en base a la legislación vigente, que vayan acompañando a su dueño/a.

### Artículo 5. Libro de registro.

El/la sepulturero/a se encargará de llevar un libro de registro que se guardará en la oficina del cementerio. En éste se anotarán las inhumaciones, exhumaciones y traslados realizados en sepulturas, nichos y columbarios, así como de las cenizas y restos depositados en la fosa común.

Así mismo, en los despachos de la Administración del Ayuntamiento se llevará un libro de registro de las autorizaciones emitidas para toda clase de inhumaciones, exhumaciones y traslados, que estarán bajo la responsabilidad del encargado del servicio correspondiente.

### Artículo 6. Servicios y mantenimiento.

El Ayuntamiento de Deba tendrá a su cargo la prestación de los servicios y trabajos relativos al mantenimiento, conservación y limpieza de los viales, caminos y redes de alcantarillado, alumbrado, arbolado y jardinería, edificios y demás de interés general del cementerio. Así mismo será de cargo del Ayuntamiento las eventuales obras de reparación en los elementos del cementerio.

## II. KAPITULUA

### HILERRIAREN ZERBITZU PUBLIKOIA

#### 7. artikulua. Hilobi motak.

Debako hilerrian hilobi mota hauek daude:

- Banakako nitxoak, horman jarritakoak.
- Lur azpiko nitxoak.
- Errautsak gordetzeko lurperatutako kolunbarioak.
- Errautsen parkea.
- Hezurtegia.

#### 8. artikulua. Hilobien edukiera.

– Horman jarritako banakoko 54 nitxo: 6 modulu, 9 nitxo modulu bakoitzeko.

– Lur azpiko 30 nitxo: 5 modulu, 6 nitxo modulu bakoitzeko.

– 972 errauts kutxa lurperatutako kolunbarioetan: 54 modulu, 18 unitateko edukiera moduluko.

#### 9. artikulua. Hilokutxen eta hauts kutxen ezaugarriak.

Hilokutxak eta hautsen kutxak 202/2004 Dekretuko 14. artikuluan ezarritako ezaugarriak bete behar dituzte.

Errauts kutxak honako neurria izan beharko dute gehienez: Diametroa 20 x altura 25.

Hala badagokio, erlikia-ontziak erabili ahal izango dira, baldin eta horien bolumenaren baturak aukera ematen badu errauts ontzi baterako espazioan kokatzeko.

#### 10. artikulua. Ehorzketen hurrenkera.

Nitxoetan egiten diren ehorzketak ilara bakoitzean hasi beharko dira, nahitaez: beheko nitxotik hasi eta gorantz joan beharko dute azken nitxoan amaitu arte. Kolunbarioeko zutabeetan utzi beharreko errautsetarako irizpide bera erabiliko da, eta hobi komunari dagokionez, udal langileek errautsak edo gorpuzkiak utziko dituzte horretarako prestatutako sarreraren bidez.

#### 11. artikulua. Hilobiak erabiltzeko eskubidea.

Udalaren baimena beharko da hilobiak erabiltzeko (sartzeko eta ateratzeko), bai hormako nitxoak zein lur azpikoak, eta baita errautsak gordetzeko kolunbarioak zein Errautsen parkea.

Erabiltzeko eskubidea aldi baterako izango da, eta zerga ordenantzan ezarritako tasa ordaindu beharko da emandako zerbitzuaren arabera.

#### 12. artikulua. Egonaldiaren epea.

Nitxoetako eta kolunbarioetako egonaldia, Artzabalgo Errola Liburuan agertzen den lurperatze/lekualdaketa datatik aurrera hasiko da zenbatzen. Bost urteko epea igarotakoan, espazio-premien arabera (Udalarena), behar besteko aurrerapenarekin eta hilerrian bertan abisuak emanaz publiko egin ondoren (familiar jakinarazi ondoren), Udalak kolunbarioko nitxoaren edo errautsen gorpuzkiak hobitiki aterako ditu, eta hezur-hobi komunean edo errautsen hobi komunean utziko dira, eta, berreskuratzeko eskaerarik jaso ezean, suntsitu egingo dira.

Aukerarik egonez gero, hilobiko egonaldia luzatu ahal izango da, urtez urte eta berrikusteko moduan, betiere udalaren premiei lotuta eta luzapen horri dagozkion tasak ordaindu ondoren.

#### 13. artikulua. Lekualdatzeko aukera.

Egonaldi epea pasatu gabe senitartekoen gorpuzkiak edo errautsak lekualdatzea erabakitzen badute, osasun zein udal baimena beharko dute, eta dagokion tasa ordaindu beharko dute.

## CAPÍTULO II

### EL SERVICIO PÚBLICO DEL CEMENTERIO

#### Artículo 7. Tipo de sepulturas.

En el cementerio de Deba existen estas sepulturas:

- Nichos individuales de pared.
- Nichos excavados en tierra.
- Columbarios enterrados para cenizas.
- Parque de cenizas.
- Osario.

#### Artículo 8. Capacidad de las sepulturas.

– 54 nichos de enterramiento individuales en pared: 6 módulos, 9 nichos por módulo.

– 30 nichos excavados en tierra: 5 módulos, 6 nichos por módulo.

– 972 urnas en los columbarios enterrados: 54 módulos con capacidad de 18 unidades cada uno.

#### Artículo 9. Características de los féretros y las urnas de cenizas.

Los féretros y las urnas de cenizas deberán cumplir con las características detalladas en el artículo 14 del Decreto 202/2004.

Las urnas de cenizas deberán ser como mucho de la siguiente medida: 20 diámetro x 25 de altura,

En su caso, se podrán utilizar relicarios cuya suma de volumen permita su ubicación en el espacio destinado a una urna.

#### Artículo 10. Orden de enterramiento.

Los enterramientos que se realicen en nichos deberán iniciarse en cada fila, obligatoriamente, por el nicho inferior e ir ascendiendo hasta finalizar en el último nicho. Regirá el mismo criterio para las cenizas que se deban depositar en las columnas del columbario, y en lo que respecta a la fosa común, el personal municipal depositará las cenizas o restos cadavéricos a través de la entrada habilitada para ello.

#### Artículo 11. Derechos de uso de sepulturas.

Será, necesaria la autorización del Ayuntamiento para hacer uso de las sepulturas (inhumación y exhumación), tanto para los nichos de pared y en tierra, así como, para los columbarios y para el parque de cenizas.

El derecho de uso tiene carácter temporal, y conlleva el pago de la tasa estipulada en la ordenanza fiscal correspondiente al servicio prestado.

#### Artículo 12. Tiempo de estancia.

Las estancias en nichos y columbarios se empezarán a contar desde la fecha de inhumación/traslado que conste en el libro registro de Artzabal. Transcurrido el plazo de cinco años, según las necesidades de espacio (del Ayuntamiento), tras (comunicárselo a la familia) hacer público con la debida antelación y mediante avisos en el propio cementerio, el Ayuntamiento procederá a la exhumación de los restos del nicho o cenizas del columbario, que serán depositados en la fosa común osario o de cenizas, y se destruirán en caso de no haberse recibido solicitud para su recuperación.

Si hubiera disponibilidad, se podrá prolongar la estancia en la sepultura por periodos anuales y revisables, siempre sujetas a las necesidades municipales y una vez satisfechas las tasas correspondientes a dicha prorrogación.

#### Artículo 13. Opción de traslado.

Si los familiares decidieran, estando en vigor el tiempo de estancia, el traslado de los restos o cenizas será necesaria la autorización sanitaria y municipal, así como el pago de la tasa correspondiente.

14. artikulua. *Hobi komuna.*

Hobi komunetan (hezurtegi nahiz errautsen hobian) jasoko dira familiakoek eskatu ez dituzten gorpuzkinak edo errautsak, behin zegokion hilobi erabilera eskubidearen epealdia igaro ondoren. Hezurtegi gorpuzkien hondakin eskeletikoak utziko dira. Eta errautsen hobian soilik errautsak.

III. KAPITULUA

ERAIKUNTZAK, IDENTIFIKAZIOA ETA APAINGARRIA

15. artikulua. *Eraikuntzen aldagarritasun eza.*

Hormako zein lurpeko nitxoak eta lur azpiko kolunbarioak hilberriaren elementuak dira, eta haien diseinua, eraikuntza eta aldatetak Debako Udalari baino ez dagozkio.

16. artikulua. *Identifikazio plakak.*

Identifikazio plaken diseinua, prestaketa eta instalazioa Debako Udalari soilik dagokio.

Onartuko diren identifikazio plaka bakarrak honako ezaugarri, diseinu eta baldintzak betetzen dituztenak izango dira:

– Grabatua baino ez da onartuko, inolako kolorerik, irtenerik edo kanpoko bolumenik gabe.

– Ez da inolaz ere plakaren gainean inolako osagai atxikirik, erantsirik edo loturik onartuko.

Neurrien eta materialen homogeneousotasuna eta finkatzeko sistemara egokitzen dela kontrolatzeko, Udala izango da pertsona interesdunei plakak hornituko dizkien bakarra.

Plakarekin batera grabatuen inguruko jarraibide zehatzak emango zaie interesdunei.

Interesdunak izango dira plakak grabatzeko arduradunak, eta grabatuan testu idatzia zein sinboloak, irudiak edo figurak erabili ahal izango dira, haiek nahi bezala, baina aurretik aipatutako baldintzak errespetatuz, betiere.

Plaka grabatuta itzuli ondoren, Udalari eta ez beste inori dagokio hura dagokion horma-hobian instalatzea.

17. artikulua. *Apaingarriak.*

Partikularrek ezingo dute inolako apaintzeko elementurik jarri, hilberriaren aldi baterako lore-sorta eta lore-koroak izan ezik.

Salbuespen gisa, azaroaren 1ean baimenduta egongo dira mota guztietako loreak.

Aste bete pasata loreak hilerriko langileek kenduko dituzte.

IV. KAPITULUA

HILETAK EGITEKO ARETOA ETA BEILATOKIEN ERABILPENA

18. artikulua. *Areto motak.*

Debako hilerrian bi areto mota daude:

– Ekitaldi Areto bat.

– Bi beilatoki.

19. artikulua. *Aretoak erabiltzeko eskubidea eta betebeharra.*

Aretoak erabiltzeko eskaera edozein pertsona fisikok egin dezake, Debako herrikoa izan edo ez, edo ehorzte enpresa baten bidez.

Artículo 14. *La fosa común.*

Se depositarán en las fosas comunes (osario general o fosa de cenizas) los restos de cadáveres y cenizas no solicitados por los familiares, una vez transcurrido el plazo de concesión de derecho funerario de uso de la sepultura. En el osario se depositarán los restos esqueléticos de los restos cadavéricos. Y en la fosa de cenizas exclusivamente las cenizas.

CAPÍTULO III

CONSTRUCCIONES, IDENTIFICACIÓN Y ORNAMENTACIÓN

Artículo 15. *Inalterabilidad de las construcciones.*

Los nichos de pared como los de tierra, así como los columbarios son elementos del cementerio cuyo diseño, construcción y alteración corresponden exclusivamente al Ayuntamiento de Deba.

Artículo 16. *Placas de identificación.*

El diseño, la elaboración y la instalación de las placas de identificación corresponden exclusivamente al Ayuntamiento de Deba.

Las únicas placas de identificación admisibles para su colocación serán aquellas cuyas características, diseño y condiciones se especifican a continuación:

– Únicamente se admite el grabado, sin aplicación de color de ningún tipo ni resaltes, ni volumen exterior.

– En ningún caso se admitirán elementos adheridos, añadidos o fijados sobre la placa.

Para controlar la homogeneidad de medidas, materiales y adaptación al sistema de fijación, el Ayuntamiento será el único suministrador de las placas a las personas interesadas.

Junto con la placa se les facilitará a las personas interesadas las instrucciones detalladas de los grabados.

Las personas interesadas serán las encargadas del grabado de estas, pudiendo incluir en el grabado tanto texto escrito como símbolos, imágenes o figuras, a su elección, pero debiendo en todo caso respetar las condiciones antes citadas.

Una vez devuelta la placa ya grabada, corresponderá exclusivamente al Ayuntamiento la instalación de esta en el nicho correspondiente.

Artículo 17. *Ornamentación.*

Los particulares no podrán colocar ningún elemento ornamental a excepción del depósito temporal de ramos y coronas de flores del recién fallecido.

Excepcionalmente, el 1 de noviembre se permitirán todo tipo de flores.

Al cabo de una semana las flores serán retiradas por el personal del cementerio.

CAPÍTULO IV

USO DE LA SALA DE FUNERALES Y LOS VELATORIOS

Artículo 18. *Tipo de salas.*

El cementerio de Deba cuenta con dos tipos de salas:

– Una sala de actos.

– Dos velatorios.

Artículo 19. *Derecho y obligación de uso de las salas.*

Podrá solicitar el uso de las salas cualquier persona física, sea o no vecina del municipio de Deba, o bien a través de empresa funeraria.

Aldi berean eskabide bat baino gehiago badago, eskabidea aurkezteko hurrenkera kronologikoa erabiliko da baimena ebazteko irizpide gisa.

Aretoa erabiltzeko eskaera egin duenak zerga ordenantzan ezarritako eguneko tarifa ordaindu beharko du eta salen erabilerara arauak bete beharko ditu.

#### 20. artikulua. Ekitaldi aretoa.

Ekitaldi aretoa hiletak egiteko gune bat da, laikoak edo erlijiosoak izan.

Aretoaren erabilpen baimena duena izango da udal ondasunetan gertatzen diren kalte eta galeren erantzule.

Modu berean, ospakizuna antolatzen duenari dagokio atontze edota zerbitzu osagarrien ardura.

#### 21. artikulua. Beilatokiak.

Hileta-beilatokiko zerbitzu publikoaren helburu nagusia da hildakoen senideei eta hurbilekoei baldintza duinak ematea, gorpuak lurperatu, erraustu edo lekualdatu arte, baldintza higieniko eta sanitario egokietan.

Udalak ez du bere gain hartuko hilotzak udalerrri barruan lekualdatzeko zerbitzua emateko betebeharra (etxetik beilatokira eta hortik hilerria), ez eta hilotza prestatzekoa ere. Jarduera horiek guztiak sektoreko enpresek egingo dituzte, Hiletetarako Osasun Poliziaren Erregelamenduan ezarritakoari dagokionez.

### XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu honetan aurreikusten ez dena, uztailaren 20ko 2263/1974 Dekretuak onartutako Osasun eta Hileta Poliziaren Arautegian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Hiletari buruzko Arautegia onartzen duen urriaren 19ko 202/2004 Dekretuan ezarritakoa beteko da, bai eta esparru horretan indarrean dauden gainerako arauak ere.

### XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehenengoa. Ehorzketen lagapena Amillagako hilerrian.*

Erregelamendu hau indarrean sartu ondoren, ezingo da, inolaz ere, ehorzketarik egin Amillagako hilerrian. Hala, ehorzketa oro Artzabalgo hilerrian egin beharko da.

*Bigarrena. Amillaga hilerria ixteko espedienteak.*

Debako Udalak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatuko dio Amillaga hilerria ixteko baimena. Edonola ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Hileta Arautegia onartzen duen 202/2004 Dekretuaren 48. eta 49. artikuluetan ezarritakoa aintzat hartuko da.

*Hirugarrena. Amillaga hilerriko gorpuzkien bilketa eta lekualdaketa.*

Amillaga hilerriko gorpuzkien bilketa eta, hala badagokio, Artzabal hilerria lekualdatzea, ehortzitakoen familiek eskaturik egingo da.

Udalak senitartekoei jakinaraziko die, gutxienez hiru hilabeteke epearekin, erabaki dezaten gorpuzkiekin zer egin nahi duten.

Amillagako hilerriatik Artzabalgo hilerria soilik errautsak eramango dira. Amillagako hilerriko errautsak hilerri berriko kolunbarioetan jarriko dira.

En los casos en que coincida al mismo tiempo más de una solicitud, se utilizará como criterio para la resolución de la autorización el orden cronológico de presentación de la solicitud.

Quien realice la solicitud de uso de la sala deberá abonar la tarifa diaria establecida en la ordenanza fiscal y cumplir con las normas de uso de las salas.

#### Artículo 20. Sala de actos.

La sala de actos es un espacio destinado a la celebración de funerales, ya sean de carácter laico o religioso.

El titular autorizado para el uso de la sala tendrá la responsabilidad sobre los daños y perjuicios ocasionados en los bienes de propiedad municipal.

Del mismo modo, serán a cargo del organizador de la celebración la ornamentación y contratación de los servicios complementarios.

#### Artículo 21. Velatorio.

El servicio público de velatorio tiene por objeto fundamental facilitar a la familia y personas allegadas unas condiciones dignas para el depósito y vela de los cadáveres hasta el momento de su inhumación, incineración o traslado en las debidas condiciones higiénico-sanitarias.

El Ayuntamiento no asumirá la obligación de prestar los servicios de traslados de cadáveres dentro del municipio (del domicilio al velatorio y desde este al cementerio), así como tampoco está obligado a la preparación del cadáver. Todas estas actuaciones se realizarán por empresas del sector con respecto a lo establecido en el Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria.

### DISPOSICIÓN ADICIONAL

En lo no previsto en el presente Reglamento se estará a lo dispuesto en el Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria aprobado por Decreto 2263/1974 de 20 de julio y el Decreto 202/2004 de 19 de octubre por el que se aprueba el reglamento de Sanidad Mortuoria de la Comunidad Autónoma del País Vasco y demás normativa en vigor sobre la materia.

### DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera. Cese de las inhumaciones en el cementerio de Amillaga.*

Una vez entrado en vigor el presente Reglamento, ya no podrán practicarse, en ningún caso, inhumaciones en cementerio de Amillaga. Así, toda nueva inhumación tendrá lugar en el cementerio de Artzabal.

*Segunda. Expediente de clausura del cementerio del Amillaga.*

El Ayuntamiento de Deba formalizará ante el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco la solicitud para la autorización de clausura del cementerio de Amillaga. En todo caso, se estará a lo dispuesto en los artículos 48 y 49 del Decreto 202/2004 por el que se aprueba el Reglamento de Sanidad Mortuoria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Tercero. Recogida y traslado de restos del cementerio de Amillaga.*

La recogida de restos del cementerio de Amillaga y, en su caso, el traslado de estos al cementerio de Artzabal, se realizará a instancia de los familiares inhumados.

El ayuntamiento notificará, con un mínimo de tres meses de antelación, a los familiares para que decidan lo que quieren hacer con los restos.

Solo se trasladarán cenizas del cementerio de Amillaga al cementerio de Artzabal. Las cenizas del cementerio de Amillaga se colocarán en los columbarios del nuevo cementerio.

Udalak erantzunik jaso ezean, gorpuzkiak atera eta sunsituko ditu.

#### AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau indarrean sartuko da testua, oso osorik, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 legearen 65.2 artikuluan adierazitako hamabost egunak iragan ondoren.

Deba, 2022ko otsailaren 2a.—Gilen Garcia Boyra, alkatea.  
(627)

En caso de no atender a este requerimiento, el Ayuntamiento procederá a la retirada de restos y su destrucción.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Reglamento, entrará en vigor tras la publicación de su texto íntegro en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, tras el transcurso del plazo de quince días señalado en el artículo 65.2 de la ley 7/85 reguladora de las Bases de Régimen Local.

Deba, a 2 de febrero de 2022.—El alcalde, Gilen Garcia Boyra.  
(627)